

Gaur da Zeliakoen Espainiako Eguna

2.400 FAMILIAK JASO ZUTEN EROSKIREN ETA ZELIAKOEN ELKARTEEN LANKIDETZAREN ONURA

- Hitzarmen horien atzean Osasun eta Iraunkortasun arloko konpromisoak daude, EROSKI 2018. urtean hartuak
- EROSKI lankidetzak hitzarmenak ditu EAeko, Nafarroako, Errioxako eta Kataluniako zeliakoen elkarteekin
- EROSKI konpromisoa hartu du glutenik ez duten marka liderretako eta marka propioko produktu espezifikoak eskaintzeko prezio merkean

Elorrio, 2021eko maiatzaren 27a.- [EROSKI](#) beste pauso bat eman du elikadura espezifiko behar dutenen nutrizio premiei erantzuteko; kasu honetan, zeliakoen kolektiboa. Hala, beste lau urtez berritu du lankidetzak hitzarmena [Euskal Autonomia Erkidegoko \(EZE\)](#), [Errioxako \(ACERI\)](#), [Nafarroako \(ACN\)](#) eta [Kataluniako \(ACC\)](#) zeliakoen elkarteekin.

Lurralde hitzarmen horien harira, 2.400 familiak jaso dute EROSKI bazkideei eskaintzen dien %20ko deskontuaren onura, bai EROSKIren Glutenik Gabeko marka berriko produktuetan eta bai glutenik ez duten produktuen fabrikatzaile espezifikoetan.

"Etxean zeliako bat duten familiek gastu handiagoa izaten dute oinarrizko elikagaiak erosteko garaian. Hitzarmen horien bidez, elkarte horiekin jarduten gara gutxienez zeliako bat duten elkarteko familiei urteko 300 euro baino gehiago helarazten", azaldu du EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

Hitzarmenen oinarrian, EROSKI 2018an [Osasun eta Iraunkortasun arloan harturiko konpromisoak](#) daude, eta zehazki laugarren konpromisoari egiten diote erreferentzia, elikadura intolerantziagatik elikadura espezifiko behar dutenentzat (hala nola zeliakoentzat) edo bizitzako etapa desberdinak edo bizi estiloak sorrarazitako premiak dituztenentzat. Hori dela eta, EROSKI jasota utzi du borondatea duela horrelako eskariak betetzeko. Hala, produktuen eskaintza

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



segurua izango da, erosketa arrunt baterako bezainbestekoa eta ordaintzeko moduko prezioan.

Zeliakoen Nazioarteko Eguna dela medio, EROSKI^k glutenik gabeko produktuen eskaintza hobetzeko konpromisoa berritu du, zeinak gaur egun glutenik ez duten 3.000 produktu baititu, horietatik 2.500 askotariko markatakoak eta 550 produktu marka propioak eta glutenik ez dutela bermatuak.

"Zeliakoen elkarteekin dugun lankidetzaren hitzarmena ez da ekonomiaren arlokoa. Onuradunek gehienbat balioesten duten alderdia gure markako glutenik gabeko produktuen fidagarritasuna da; izan ere, bermatua dute glutenik ez dutela [FACE-Zeliakoen Elkartearen Espainiako Federazioaren](#) bitartez", esan du Martinez Berriochoak.

Erakunde horiekin dugun lankidetzari esker, EROSKI^k zuzenean ezagut ditzake zeliakoen premiak eta haiek erosteko orduan dituzten espektatibak. *"Horrek praktikan esan nahi du denda batean glutenik ez duten produktuek ohiko erosketa prozesuaren logika betetzen dutela; hala, gauza gara bezeroari erosketa esperientzia atsegingarri bat eskaintzeko",* aipatu du EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)